

Maurice Utrillo

Margolari eta margozialien artean aitaturia izan da egun aurretan Maurice Utrillo, Paris'tar paisajista il-berriaren izena. Bere '72'garren urtean, Akize'ko urian ezagutu du azkena. Francen eta ludi osoan zer esana sortu du berri onek, edertzalle eta jakitunen artean. Ainsteste zor zaio artista onen egintzari, egilleari berari, zenbaiten ustean, gizonetasun aldetik, gutxiago ba'dagokio ere.

Errugabeak baginake, gu ere gizagajo onen akatsak erabilizten solastuko ginake, bañon obe izango degu errukiari bidea eman eta era bat goralgarriak ezagutu ta ospatu, bai dago nundikan eta.

Utrillo'ren margo-sailla alde batera utzita, gizon onen bizitzari begiratzen badiogu, zorion aundirik ez degu arkituko, miheria ta mifia baizik, ixil asko eta apalkiro eramana. Bañon, gizona-gizon, beste aldetik, pintore onen lanaren aurrean, txapela kendu besterik ez-dago. Edale, ardozale kokkor baten lanak izango dira, bañon inolakoak!

Maurice Utrillo, sendi legez, erdi sasiko umea izan zan, bere aitak (arrote zar bat) berekotzat ezagutu etzuen, eta ama, Suzanne Valadon izeneko komediante, modelo eta pintorea izan zuena. Era ontan, mutikoa, kale gorrian azirik, nolabaiteko eskolan, gaztetandik edariari ematen asi zan, eta diotenez, geroztikan ezin astindu izan du beregandik ardozalekeria. Auxe da Utrillo gizaxuaren akatsa. Bañon bere kuadro ederrak ardo usai aundirik ez dute zabaldu.

Maixu gabeko asierak izan zituen margozetan, eta geroztik ere, oraindafi, bere-berezko iritzia eta estiloa gorde izan ditu Maurice Utrillo'k. Kritikoen artean, ez da inor gauza, pintura

mota oneri, beste inñungo kidesunak arkitzeko, ez *impresioniste*, ez *symboliste*, ez *cubiste*, ez *fauve*, inñungo joera eta inñungo griña ez dakarrelako, berea baizik.

Eta bere ortan, Utrillo'k, bereziki, inñork ez bezela, paisaje mota bat bakarra, kale tarteko paisajea, Paris gafiako Montmartre'ko bazterren aurpegia eta kutsua sustarretik artuta bizitzen eta izketan jarri ditu urtietako lanaldi berdingabea. Ikusgai zabal-aundien atzetik ibilli gabe, basoak eta zelayak alde batera utzirik, gizarte ezkutu baten bizilekua aukeraturik, Montmartre'ko auzo biurri eta nabarraren agertzalea izan da Maurice Utrillo. Ikusgarriak dira onen kale barrenak, plazatxoak, kan-toiko denda kokorak, tellatu-tximiniak, illunabarreko argiparolak...

Artista argia eta samurra, Paris'ko erriko-etxeak bere iru oyal ederrekin ornitu nai izan ditu udaletzeko gela nagusiak, eta oraintsu, uriaren urrezko medallaz saritu zuen.

Akatsak akats, gogoan artzekoa da auxe: Utrillo'k, Montmartre'ko umea izanik, ango zuloetan dabillen ainbeste narraskeria-ri ez diola inñoiz jaramonik egin bere irudietan. Ardozale, bai; aragizale, ez. Eta sinistedun ere bai. Bai zekien bere aultasunean begiak gora jasotzen. Bere azken naia, betea izan da. Jesus Biotzaren ondoko Saint Vincent'eko ildegian lurraltu dituzte bere ezurak, bañon aurretik, Paris'ko kardenalaren baimenarekin, Sacre Coeur eleiz barruan egon da Maurice Utrillo margolari aundiaren gorputza. Edertasun Betikoa dan Arek onartuko al-zuen bere anima.

DUNIXI